



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Txomin Hualde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2025eko uztailaren 31ean, 19:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko maiatzaren 21 eta ekainaren 6ko aktak onartzea.

2.- AURKIDI ETA IRAMENDI PARAJEAK OIHAN ENKANTEA: PLEGUEN ONESPENA.

Udalburuak azaldu du, 2025eko maiatzaren 21ko osoko bilkuran Aurkidi eta Iramendi parajeko lotea enkantean berriz ateratzea adostu zela %10eko beherapenarekin. Ezarritako epea igaro eta gero, lotea esleitu gabe gelditu zen ez baitzen eskaintzarik jaso.

Juan José Antonio De Dios Martin jaunak, SERVICIOS FORESTALES DE DIOS,S.L.U enpresaren izenean, eskaintza ekonomiko bat aurkezten du. Idazkariak sobrea irekitzen du eta egindako eskaintza irakurtzen du, 40.000 eurokoa dena, BEZ gabe.

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

- 1. Juan José Antonio De Dios Martin jaunak, SERVICIOS FORESTALES DE DIOS,S.L.U enpresaren izenean egindako eskaintza onartzea.**
- 2. Nafarroako Gobernuari balorazio ekonomikoaren txostena eskatzea, (Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990, uztailaren 2ko lege foralaren 166.artikuluaren ezarritakoaren arabera)**
- 3. Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

Martxel Elizalde Elizalde eta Ezekiel Loiarte Santesteban zinegotziak sartzen dira



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. XEHETASU AZTELARNA 4. POLIGONOKO 26. LURZATIA. HASIERAKO ONEZPENA.

Eduardo Zubicoa Viela arkitektuak egindako memorian, Bingen Larrea Lecuberria jaunak sustatutako 4. Poligonoko 26 lurzatiko zehetasun azterlana aurkeztu zuen, 2025eko ekainaren 3an Zubietako egoitza elektronikoan 353 zenbakia duena.

Udal arkitektuaren aldeko txostena ikusirik 2025eko uztailaren 22koa eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginako 74. artikuluan xedatutako betez (1/2017 LFD, uztailaren 26koa), Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

- 1. Hasierako onespena ematea 4 poligonoko 26 partzelaren xehetasun azterlanari.**
- 2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen den egunkarian, jendaurrean egon dadin hoge laneguneko epean.**
- 3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari eta 4.poligonoko 25, 27, 16, 15 eta 10 luzatien jabeei.**

4. UDALETXE ZAHARRAREN GELA OSTATUARI LAGATZEA

2024ko irailaren 3ko Zubietako osoko bilkuran "Reforma de la cocina y adecuación de espacio común herriko etxea de Zubieta" proiektua onartu zen eta 67.876,71 eurokoa lizitazioan ateratzeko pliegoak ere onartu ziren, PDR dirulaguntza barne.

Obraren kontratua IM Arrixko Igeltseritza,SL enpresari esleitu zitzaion 67.500,00 eurotan. Herriko ostatuko sukaldea berritu da, "salvaescaleras" bat jarri da, erropa garbigailu berria, web orria eta udala zaharra gela egokitu da ostaturako egongela bat eginez, ostatuko logeletan dauden jendeendako egongela baten beharra ikusita

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1.-Egongela erabiltzeko hurrengo baldintzak bete behar dira, uko egitea aukera egonda:

- Egongelaren erabilera, ostatuko logelean dauden pertsonendako izango da.**
- Erabilera modu egokian izan behar da. Erabilera desegokia ikusten bada zesioa utzi beharko dute.**
- Herriko ostatuaren errentariari egongelaren giltza emango zaio.**
- Herriko bestetan, abuztuaren 14 eta 15an udaletxeko langileak, behar dutenean, bertan sartuko dira,**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2.-Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.- ESKAERAK

4.1– 1999.urtean Zubietako zerrategiak eta oiloen granjak herriko ur sareari lotzeko eskaera egin zuten.

1999ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran obra egiteko lizentzia eman zitzaien eta obrak egin ondoren, Udaletxeko ur-sarean sartuko zenez, udaletxearena izango zela zehaztu zen.

2000ko irailaren 27ko Iparraldeko Konfederazioa Hidrografikoaren ebazpenean, E-A/31/00482A referentzia duenak, ur-sareari lotzeko baimena ematen dio Maderas Santesteban, S.L. enpresari.

Maderas Santesteban, S.L. enpresak, bere izenean dagoen aprobetxamendua Udalaren izenera aldatzeko eskaera aurkezten du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erantzutea erabaki du:**

1.- Eskaera onartzea

2.- Akordioa interesatuari eta Konfederazioari jakinaraztea.

6.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (33/2025- 40/2025 ebazpenak).

7.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Bianako Printzipe Erakundea- Kulturako Zuzendari nagusiaren 171E/2025 ebazpenean, ekainaren 18koan, Nafarroako museotan eta museo bilduma iraunkorretan inbertsioak egiteko 2025 urteko laguntzak ebatzi ditu eta Zubietako udalari 10.000 euroko dirulaguntza eman dio errotako kanala garbitzeko eta ur ihesak konpontzeko-- Bianako Printzipe Erakundea- Kulturako Zuzendari nagusiaren 161E/2025 ebazpenean, ekainaren 11koan, Nafarroako museoen funtzionamendurako eta museo bilduma iraunkorretan 2025 urteko laguntzak ebatzi ditu eta Zubietako udalari 12.531,15 euro eman dio, errotaren gastutarako-- Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena Leire Mariezkurrena Perotxena (4pol 484lur), Arrate Leizeaga Unsain (4pol 546lur) eta Nafar Gobernuako Ingurumen



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

departamentuari Ezkurra ibaian egin beharreko obrak egiteko baimena emanaz--- Zubietako uraren kalitatea-- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Juan Miguel Vera Jauregui-- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako aprobetxamendu baimenak: JM Echecolonea Urriza eta Juan Miguel Vera Jauregui—Nafar Gobernuako Abeltzaintza zerbitzutik ebazpena Marcelino Santesteban Elizalde oiloak altan emanaz---324E/2025, uztailaren 11koa Turimoaren Antolamendu, Kudeaketa eta kalitate Zerbitzuko zuzendariak emandako ebazpena, Nafarroako turismo erregistroan Zubietako Ostaturia izena emanaz---iruñako 5.Jabetza erregistroko informazio txostena 612 finkari buruzkoa—Hondakin plana: 2025eko maiatzaren 3an indarrean sartu zen "Decreto Foral de Eventos Públicos y Sostenibilidad" izeneko Foru Dekretua. Derrigorrez bete beharreko Foru Dekretua honen arabera, tokiko administrazio publikoek antolatutako, diruz lagundutako edota promozionatutako festa eta ekitaldietan sortzen diren hondakinen inguruan bete behar dituzuen hainbat kontu zehazten dira. Hori dela eta Mankomunitateak antolatutako bilera bat egin zen maiatzaren 29an, helburua plastiko 0 lortzea da eta horretarako mankomunitateak edalontziak erosi ditu---AboEnergy enpresarekin bilera---Auzolana abuztuaren 9an egiteko--- Nafarroako Gobernuak enpresa bati eman dio lana, borden egoera ausnartzeko. Bilera egin zen eta udalak ardi borden beste erabilpen bat emateko intentzioa adierazi zuen---Mankomunitateak pisu tutelatuak kudeatzen ditu, zehazki 21 etxebizitza. Zaharkitzen ari dira eta babes sozialeko etxeak dira, gastuak kubritzen dirabaina hemendik gutxira gastu handia suposatuko dute. Nasuvinsakin bilera egin da

8.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.